BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1556

AGINDUA, 2013ko martxoaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako 2013ko deialdia egiteko dena.

Euskadiko gazteen artean elkartasuna indartzeko eta kontuan hartuta Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek azken urteotan hegoaldeko herriak garatzen laguntzeko bultzatu dituzten lankidetza-jarduerak, egokitzat jo da 1993. urtean eratutako Euskadiko Gazteak Lankidetzan programari jarraipena ematea.

Euskadiko gazteak garapenerako elkarlanean sentsibilizatzea da aipatutako programaren helburua. Aurtengo ekitaldi honetan ere, Euskadiko gazteak lankidetza kontzeptura hurbil daitezen lortu nahian jarraitzen dugu, era berean, ekintza horiek nola burutzen diren bertatik ezagutzeko aukera emanez. Horretaz gainera, esperientzia hori informazio eta orientazio jardunaldi batzuen bidez zabaldu eta osatuko da.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen bitartez 2013ko ekitaldian Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako dei egiten da, bai eta bertan parte hartzeko modua arautu ere. Programaren xedea da, 2013ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako proiektuak aurkezteko garapen-lankidetzarako erakundeei dei egiten dien Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko martxoaren 20ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz hautatutako herrialde eta lankidetza-proiektu jakinetara 20 eta 30 urte bitarteko 100 pertsona gehienez joateko erraztasunak ematea.

2.– Programa hau diru-laguntza da. Pertsona onuradunak ez du zuzenean jasoko aurreko puntuan adierazitako gastuen diru-kopurua, Gazteria Zuzendaritzak kudeatuko baititu laguntzari dagozkion bidaia-txartelak eta gainerako prestazioak.

2. artikulua.– Zuzkidura.

Bidaia-gastuetarako eta, hala badagokio, hautatutako pertsonak destinoko herrialdean sartzeko bisaren gastuetarako programa honek 2013ko ekitaldirako guztira duen gehieneko zenbatekoa 155.000 eurokoa da. Zenbateko hori handitu egin ahalko da agindu honen Xedapen Gehigarrian zehaztutakoaren arabera.

3. artikulua.– Bete beharreko baldintzak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo bere erakunde autonomiadunek onuradunari ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman badizkiote eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, diru-laguntzaren esleipena eta, hala badagokio, ordainketa egoera hori konpondu arte baldintzatua egongo da.

2.– Gainera, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eta I. eranskinean ezartzen den moduan egiaztatu:

a) 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izatea edo, bestela, euskal izaera politikoa izatea, Autonomia Estatutuaren 7. artikuluan ezarritakoa betez.

b) 1983 eta 1993 artean jaio izana, bi urte horiek barne.

c) Jarduera egingo den herrialdean hitz egiten duten nazioarteko hizkuntza jakitea.

d) Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik duten pertsona fisiko zein juridikoek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik, sexu-bereizkeriaren ziozko zigor administratibo edo penalak barne hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik seigarrenaren indarrez (II. eranskina).

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau indarrean sartzen den egunetik kontatzen hasita.

5. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabideak bi modutara egin daitezke: bai on line, bai deialdi honen I. eranskinean txertatzen den inprimaki ofiziala aurkeztuta.

1.a.– Eskabidea on line eginez gero, www.gazteaukera.euskadi.net atari gaztean aurki daitekeen formulario elektronikoa bete beharko da.

1.b.– I. eranskinean txertatuta dagoen inprimaki ofiziala aurkeztea erabakiz gero, inprimaki ofizial hori honako leku hauetan aurkeztuko da, Gazteria zuzendariari zuzenduta:

a.1.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Erregistroa: Donostia kalea 1 (Lakua I, 2. solairua); 01010 Vitoria-Gasteiz.

a.2.– Eusko Jaurlaritzako Erregistro Nagusia: Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

a.3.– Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitza ofizialaren Erregistro Osagarria: Kale Nagusia 85; 48001 Bilbao.

a.4.– Eusko Jaurlaritzak Donostian duen egoitza ofizialaren Erregistro Osagarria: Andia kalea 13; 20004 Donostia.

a.5.– Herritarrentzako Arretarako Bulegoetan (Zuzenean).

a.6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren beste erregistro batzuk (72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa: 2008ko maiatzaren 30eko 102. EHAA).

b) Eskabideak zuzenean entrega daitezke, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzeko den urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako prozeduretako edozein erabilita.

c) Eskabidea correoseko bulego batean aurkeztea erabakiz gero, gutunazala irekita egon beharko da, correoseko langileek, ziurtatu aurretik, eskabide- edo justifikazio-inprimakia zigila dezaten.

2.– Aurrez hautatutako pertsonak, hautaketa aldiko biltzarra hasi baino lehen, eskabide orrian adierazitako merituak agirien bidez egiaztatu beharko ditu. Halaber, laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik ez duela, eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere ez duela dioen adierazpena aurkeztu beharko du (II. eranskina).

6. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen diren dokumenturen bat falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar

egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

7. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Parte-hartzaileak aurrez proposatzeko eta, ondoren, azken hautaketa-proposamena egiteko, Hautaketa Batzordea eratuko da. Hautaketa Batzordeko kideak hauek izango dira:

– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzako burua, Batzordeburua izango da eta, kalitate botoa izanik, azken hitza izango du boto berdinketa gertatuz gero.

– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako teknikari bat, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak izendatua.

– Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkari bat, Kontseiluak proposatua eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria zuzendariak izendatua.

– Garapenerako lankidetza-programetan diharduten Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeetako hamar ordezkari, gehienez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak proposatuak eta Gazteria zuzendariak izendatuak.

– Gazteria Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa, Gazteria zuzendariak izendatua; hitza izango du baina ez, ordea, botorik.

Hautaketa Batzordeak, egoki iritziz gero, arlo horretako beste aditu batzuei ere eska diezazkieke aholkuak eta laguntza. Laguntzaile horiek, ordea, hitza bai baina ez dute boto eskubiderik izango.

2.– Batzordekideak abstenitu egingo dira edo errefusatu egin daitezke, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

3.– Hautaketa Batzordearen osaera Gazteria zuzendariaren berariazko ebazpen baten bitartez jakinaraziko da.

8. artikulua.– Hautaketa prozedura.

1.– Hautaketa prozedurak hiru fase ditu: aurrehautaketa, hautaketa eta informazio eta orientazio aldia.

Batzordeak, aurrehautaketa fasean, gehienez 170 parte-hartzaile proposatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako proiektuak aurkezteko garapen-lankidetzarako erakundeei dei egiten dien Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko martxoaren 20ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz hautatu diren proiektuei gehien egokitzen zaizkien profilak dituztenak, alegia. Hautatutako pertsona horiek bigarren fasean parte hartuko dute. Batzordeak honako ezaugarri hauek balioetsiko ditu:

a) Eskatzaileen titulazio akademikoetatik, lanbide kualifikazioetatik eta bestelako ikasketetatik, hautatutako lankidetza-proiektuei gehien egokitzen zaizkienak, % 30 gehienez.

Nahiz eta lanbide bat edo bestea izatea baztertzailea ez den, hauek dira lankideek parte hartuko duten garapen proiektuetarako pertsona egokienak:

– Informatikariak.
– Ekonomialariak.
– Kontableak.

– Medikuak.
– Farmazialariak.
– Erizainak.
– Osasun-laguntzaileak.
– Pedagogoak.
– Begiraleak/gizarte-hezitzaileak.
– Sistema-ingeniariak.
– Industria ingeniariak.
– Agronomoak.
– Psikologoak.
– Elebitasunean adituak diren hezitzaileak.
– Albaitariak.
– Tornero mekanikoak.
– Elektrizistak.
– Arotzak.
– Iturginak.
– Gizarte-langileak.
– Diseinugile industrialak.
– Nutrizionistak.

b) Garapen-lankidetzarekin lotutako prestakuntza: gehienez ere, % 20.

c) Garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bateko borondatezko kide izatea, % 20 gehienez.

d) Gazte-elkarte batekoa zein helburu soziala duen beste erakunde bateko borondatezko kide izatea, % 30 gehienez.

Batzordeak, egoki iritziz gero, elkarrizketa pertsonala egin diezaieke hautagaiei aipatutako gai horiei buruz eta bakoitzak aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

2.– Prozeduraren bigarren fasea edo hautaketa fasea aurrez aukeratutakoekin egin beharreko batzar-egonaldia da, barnetegi batean hiru egunez nahitaez egin beharrekoa, Gazteria Zuzendaritzak ezartzen dituen baldintzetan. Egonaldi horretan Batzordeak 100 lagun aukeratuko ditu gehienez, hirugarren fasera pasa daitezen.

Beste 10 ordezko ere hautatuko dira, norbaitek uko egingo balu ere. Norbaitek bere plazari uko egingo balio, uko egin duenaren profil bera duen ordezko batek hartuko du titulartasuna. Ordezkoak ez dira hirugarren fasera igaroko.

Fase honetan honako ezaugarri hauek baloratuko dira:

a) Aurrez hautatutako pertsonen egokitasuna, batzarrean egindako elkarrizketaren emaitza aintzat hartuta: % 50 gehienez.

b) Aurrez hautatutako pertsonaren profila zenbateraino egokitzen zaien Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko martxoaren 20ko Aginduaren itzalean hautatutako lankidetza-proiektuen ezaugarriei, barne hartuta ekintzotan integratzeko duten astia ere: % 50 gehienez.

3.– Hautaketaren hirugarren fasean (informazio eta orientazio aldian) beren proiektuetan gazteak hartuko dituzten gobernuz kanpoko erakundeek hiru formazio-jardunaldi eskainiko diete aukeratutako gazteei, Gazteria Zuzendaritzak ezartzen dituen baldintzetan, eta aukeratutako gazteek nahitaez parte hartu beharko dute formazio-jardunaldi horietan. Bertan, lankide boluntario moduan burutuko dituzten lankidetza-proiektuen gaineko informazioa eta orientazioa emango zaie hautatutako pertsonei.

4.– Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu batzar-egonaldi horietan sor litezkeen ostatu eta mantenu gastuak; aitzitik, ez ditu ordainduko batzar-egonaldietara joateko eskaintzen dituen garraiobide eta ibilbideak erabiltzen ez dituzten pertsonen garraio-gastuak.

9. artikulua.– Aurrehautaketa fasearen ebazpena.

1.– Batzordeak egindako aurrehautaketarako proposamena ikusita, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria zuzendariak Ebazpena emango du zazpi egun balioduneko epean, Batzordeak dagokion aurrehautaketarako proposamenaren berri ematen dionetik hasita. Ebazpen horretan, hautaketa faserako aurreaukeratutako partaideen eta hautatu gabe geratu diren partaideen zerrenda emateaz batera, fase hori non eta noiz egingo den zehaztuko da.

2.– Aurrez hautatutakoen zerrenda Lurralde Historikoetako Kulturako Lurralde Zerbitzuetan eta www.gazteaukera.euskadi.net atarian jarriko da ikusgai, Ebazpena emateko jarritako epea bukatzen denetik aurrera. Ulertuko da zerrenda horietan agertzen ez diren pertsonak ez daudela aurrez hautatuta.

10. artikulua.– Hautaketa prozeduraren ebazpena.

1.– Hautaketa prozeduraren bigarren fasean aurreikusitako egonaldia (aurreaukeratutako pertsona guztiei zuzendua) bukatu eta zazpi egun balioduneko epean, Batzordeak beraren iritziz egokienak diren gazteak proposatuko dizkio Gazteria zuzendariari. Gehienez, 100 gazte aukeratuko dira, 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Batzordearen proposamena jaso eta zazpi eguneko epean, Gazteria zuzendariak ebazpen arrazoitua emango du, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako lankidetza-ekintzetan parte hartzeko aukeratutako gazteen zerrenda adierazteko. Ebazpen horretan aukeratu ez diren gazteen zerrenda ere agertuko da.

2.– Lankidetza jarduera, ahal dela, uztailetik aurrera egingo da eta hiru bat hilabeteko iraupena izango du, salbu eta aparteko kasuetan, jardueraren tutore den garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bakoitzarekin adostutako baldintzen arabera.

3.– Interesdunei, banan-banan, Gazteria zuzendariaren Ebazpenaren berri emango zaie. Horretaz gainera, 10.1 artikuluan Ebazpena emateko zehaztutako epea bukatzen denetik aurrera, aukeratutakoen zerrenda EHAAn argitaratuko da, baita www.gazteaukera.euskadi.net gazte atarian ere. Halaber, Lurralde Historikoetako Kulturako Lurralde Zerbitzuetan ikusgai jarriko da.

4.– Deialdia HAEEn argitaratu eta lau hilera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria zuzendariak ez badu berariazko ebazpenik eman, eskaerak ezetsitzat jo ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

11. artikulua.– Lankidearen konpromisoak.

Garapen lankidetzako jardueran parte hartzeko aukeratutako gazte bakoitzak, aldez aurretik, Gazteria Zuzendaritzan aurkeztuko duen dokumentuan, honako hauek beteko dituela hitz emango du:

a) Hegoaldeko herrietan esperientzia hasi aurretik, garapenerako gobernuz kanpoko erakunde tutoreak antolatutako prestakuntza fasean parte hartuko du.

b) Bete beharreko jarduerak eskatzen duen bizimodura moldatuko da.

c) Jarduera egin behar den herrialdean egongo da, esperientzia-aldia bukatu arte.

d) Osasunari dagokionez emandako aholku guztiak beteko ditu.

e) Esperientzia-aldia bukatu ondoren, balorazio txostena aurkeztuko du; bertan, bizi izandako jarduera nolakoa izan den eta nola burutu den azalduko du eta, aurrerantzean antolatzen diren beste proiektu batzuetarako, akatsak eta hutsuneak nola konpon daitezkeen zehaztuko du.

f) Aurtengo egitasmoa amaitu ondoren, esperientzia bakoitzaren eta programaren garapenaren ebaluazio-jardunaldietan parte hartuko du.

g) Urte betez, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek nahiz Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Gazteria Zuzendaritzak antolatutako sentsibilizazio-jardueretan parte hartzeko prest egongo da.

h) Gutxienez 30 ordu eskaintzea garapenerako gobernuz kanpoko erakunde tutoreari, bueltan iritsi eta biharamunetik kontatzen hasita 30 eguneko epearen barruan.

12. artikulua.– Ordainduko diren gastuak.

Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu jarduera egin behar den herrialdeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundearekin elkartu arteko bidaia-gastuak (joan-etorrikoak), herrialde horretara joateko behar den bisa barne. Halaber, Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu hautatutako parte-hartzaileetako bakoitzarentzako aseguruak: erantzukizun zibilari eta istripuei aurre egiteko asegurua eta bidaiako laguntzako asegurua.

13. artikulua.– Partaidetza-kuota ordaintzea.

Egitasmoan parte hartuko dutenek 90 euroko kuota ordaindu beharko diote hartuko dituen GKEari, egun natural bateko epean, destinora heldu eta biharamunetik kontatzen hasita. Ordainketa egin izanaren egiaztagiria Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari helarazi beharko zaio, esperientzia amaitu eta gero eta programaren garapena eta esperientzietako bakoitza ebaluatzeko jardunaldietan [11. artikulua, f) hizkia] parte hartu aurretik.

14. artikulua.– Arauak onartzea.

Esperientzia honetan parte hartzeak berari dagozkion arau guztiak onartzea dakar. Boluntarioaren partaidetza, batez ere, berari egokitutako proiektuan garatzen diren zereginetan gauzatuko da, baita itzulitakoan ere, zeren eta 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek nahiz Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Gazteria Zuzendaritzak antolatzen dituzten ekintzetan parte hartuko baitute.

15. artikulua.– Baldintzak ez betetzea eta eskubideak galtzea.

Hautatutako pertsonetako batek agindu honetan ezarritako baldintzak errespetatu ezean, bete gabetzat joko da Agindua eta galdu egingo du zehaztutako onurak jasotzeko eskubidea. Halaber, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dio bidaia- eta aseguru-gastuei dagokien diru kopurua, baita horri dagozkion interes legalak ere, aldez aurretik azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena, adierazitako prozedurari jarraituz.

16. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako bestelako diru-laguntzekin, baldin era gainfinantzaketarik eragiten ez badu. Hona gainfinantzaketatzat zer ulertzen den: aurreikusitako gastuak

gainditzen dituzten aurreikusitako diru-sarrerak (eskatutako diru-laguntza guztiak barne). Gainfinantzaketa gertatuz gero, eman beharreko diru-laguntzatik murriztu egingo da dagokion kopurua, gehienezko mugara iritsi arte.

17. artikulua.– Kudeaketa.

Agindu honen bidez deitutako Programa kudeatzeko lanak Gazteria Zuzendaritzari dagozkio.

18. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

1.– Deialdi honen izapidetze-prozesuan bildutako datu pertsonalak Euskadiko Gazteak Lankidetzan fitxategian sartuko dira, tratatuak izan daitezen. Fitxategi horren organo arduraduna Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordetzako Gazteria Zuzendaritza da, eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa kudeatzeko baino ez ditu erabiliko.

2.– Bildutako datu pertsonalak kontaktuen fitxategi batean sartuko dira, eskatzaileak horretarako baimena ematen badu. Fitxategi horren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordetzako Gazteria Zuzendaritza da, eta bere programei eta zerbitzuei buruzko informazioa igortzeko baino ez ditu erabiliko.

3.– Aipatutako bi fitxategiak, bai Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarena, bai kontaktuetakoa, 2006ko uztailaren 27ko Aginduaren babesean sortu ziren, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren menean daude. Interesdunek euren datuak ikusi, zuzendu, ezabatu edo fitxategian ez sartzeko lege horretan aurreikusten diren eskubideak balia ditzakete, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara idatzi bat zuzenduta (Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz). Aurrez hautatutakoen eta hautatutakoen zerrendak Gazteria Zuzendaritzaren webgunean argitaratuko dira (www.gazteaukera.euskadi.net), bai eta lurralde historiko bakoitzeko Kulturako Lurralde Zerbitzuetako bakoitzean ere, 2013ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren kudeaketarako eta dagozkion errekurtsoak gauzatzeko beharrezkoa den adinako epean.

4.– Baimena ematen zaio Gazteria Zuzendaritzari datu pertsonal horiek programan parte hartzen duten GKEei jakinarazteko, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa kudeatze eta egikaritze aldera. Era berean, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartuko duten lagunek baimena ematen diote Gazteria Zuzendaritzari euren datu pertsonalak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Osasun Ministerioko Kanpo Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiari jakinaraz diezazkien, preskribatutako txertoak emate aldera bakarrik.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bigarren artikuluan ezarritako zenbateko globala aldatu ahal izango da, baldin eta hasieran aurreikusitako diru-kopurua gainditzen bada pertsona lankide boluntarioak hautatzearen ondorioz joan-etorriko txartela –eta, hala badagokio, herrialdean sartzeko bisa– erosteaz arduratzen den enpresa esleitzean. Zenbateko hori aldatu ahal izango da, halaber, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideei buruzko erabakia hartu aurretik egin beharko da. Gazteria zuzendariaren ebazpen baten bitartez jakinaraziko da hori.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita; beste-

la, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu honek EHAAn argitaratu eta biharamunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 20a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA

1.– Datu pertsonalak (*nahitaez bete beharrekoa).

Izena*: .....

1. abizena*: .....

2. abizena*: .....

NAN edo AIZ*: .....

Jaioteguna*: .....

Sexua*: .....

Helbidea*: .....

Herria: ..... Posta-kodea: .....

Lurralde Historikoa: .....

Tel. finkoa: .....

Sakelako tel.: .....

Gutxienez, adierazi telefono-zenbaki bat (finkoa edo sakelakoa).

Helbide elektronikoa*: .....

2.– Prestakuntza.

● Hizkuntzak:

– Ingelesa:

Irakurri:	Erdizka ☐	Ondo ☐	Oso ondo ☐
Hitz egin:	Erdizka ☐	Ondo ☐	Oso ondo ☐
Idatzi:	Erdizka ☐	Ondo ☐	Oso ondo ☐

– Frantsesa:

Irakurri:	Erdizka ☐	Ondo ☐	Oso ondo ☐
Hitz egin:	Erdizka ☐	Ondo ☐	Oso ondo ☐
Idatzi:	Erdizka ☐	Ondo ☐	Oso ondo ☐

● Amaitu dituzun ikasketa arautuak:
(Gutxienez, ikasketa arautu bat adierazi behar duzu: amaitua edo orain egiten ari zarena).

– Amaitutako 1. ikasketa arautua:

Titulu akademikoa: .....

Zein ikastetxetan egin zenuen: .....

Hasiera-urtea: .....

Amaiera-urtea: .....

– Amaitutako 2. ikasketa arautua:

Titulu akademikoa: .....
Zein ikastetxetan egin zenuen: .....
Hasiera-urtea: .....
Amaiera-urtea: .....

– Amaitutako 3. ikasketa arautua:

Titulu akademikoa: .....
Zein ikastetxetan egin zenuen: .....
Hasiera-urtea: .....
Amaiera-urtea: .....

● Egiten ari zaren ikasketa arautuak:
(Gutxienez, ikasketa arautu bat adierazi behar duzu: orain egiten ari zarena edo amaitua duzuna).

– Egiten ari zaren 1. ikasketa arautua:

Lortuko duzun titulu akademikoa: .....
Ikastetxea: .....
Hasiera-urtea: .....
Aurreikusten duzun amaiera-urtea: .....

– Egiten ari zaren 2. ikasketa arautua:

Lortuko duzun titulu akademikoa: .....
Ikastetxea: .....
Hasiera-urtea: .....
Aurreikusten duzun amaiera-urtea: .....

– Egiten ari zaren 3. ikasketa arautua:

Lortuko duzun titulu akademikoa: .....
Ikastetxea: .....
Hasiera-urtea: .....
Aurreikusten duzun amaiera-urtea: .....

● Bestelako ikastaroak:

Ikastaro bakoitzeko, adierazi honako hauek: ikastaroaren izena, ikastaroa antolatu duen erakundea, ikastaroaren ordu-kopurua:

.....
.....
.....
.....
.....

● Garapenerako lankidetzako ikastaroak:

Ikastaro bakoitzeko, adierazi honako hauek: ikastaroaren izena, ikastaroa antolatu duen erakundea, ikastaroaren ordu-kopurua.

.....

.....

.....

.....

.....

3.– Esperientzia.

3.1.– Lan-arloko esperientzia.

Lan-esperientzia bakoitzari buruzko datu hauek adierazi behar dituzu: enpresa, lanbide- kategoria, lanean hasi zinen eguna eta amaiera-eguna (hala badagokio):

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3.2.– Esperientzia boluntariotzan.

● Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeetako (GGKEetako) borondatezko kide izatea:

– 1. GGKEa:

GGKEaren izena:

.....

Jarduera eta betetako eginkizunak:

.....

GGKEan hasi zinen eguna:

.....

GGKEko kide izateari utzi zenion eguna (utzi baldin badiozu):

.....

– 2. GGKEa:

GGKEaren izena:

.....

Jarduera eta betetako eginkizunak:

.....

GGKEan hasi zinen eguna:

.....

GGKEko kide izateari utzi zenion eguna (utzi baldin badiozu):

.....

● Gazte elkarteetako edo helburu soziala duten bestelako erakundeetako borondatezko kide izatea:

– 1. Gazte-elkartea edo -erakundea:

Erakundearen izena:

.....

Jarduera eta betetako eginkizunak:

.....

Erakundean hasi zinen eguna:

.....

Erakundeko kide izateari utzi zenion eguna (utzi baldin badiozu):

.....

– 2. Gazte-elkartea edo -erakundea:

Erakundearen izena:

.....

Jarduera eta betetako eginkizunak:

.....

Erakundean hasi zinen eguna:

.....

Erakundeko kide izateari utzi zenion eguna (utzi baldin badiozu):

.....

4.– Bestelako datuak eta eskabidea bidaltzea.

● Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako aurreko edizioak.

Orain baino lehenago, inoiz aurkeztu izan al zara Euskadiko Gazteak Lankidetzan programara?

Bai ☐ Ez ☐

● Programan parte hartzeko arrazoi pertsonalak.

.....

.....

.....

.....

.....

● Aintzakotzat har daitezkeen beste zenbait datu.

Aintzat hartzekoa iruditzen zaizun bestelako informazioa: zure zaletasunak…

.....

.....

.....

.....

.....

● Datuen egiazkotasuna eta betebeharren betetzea.

Aitortzen dut:

– Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla.

– Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditudala.

● Merituak egiaztatzea.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzeko aurrehautatzen baldin bazaituzte, izena ematerakoan adierazi dituzun merituak egiaztatzeko behar diren agiriak eta titulazioak aurkezteko eskatuko dizu Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak.

● Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honen izapidetze-prozesuan bildutako datu pertsonalak Euskadiko Gazteak Lankidetzan fitxategian sartuko dira, tratatuak izan daitezen. Fitxategi horren organo arduraduna Eusko Jaurlaritzako Kultura Gazteria eta Kirol sailburuordetzako Gazteria Zuzendaritza da, eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa kudeatzeko baino ez ditu erabiliko.

Bildutako datu pertsonalak kontaktuen fitxategi batean sartuko dira, eskatzaileak horretarako baimena ematen badu. Fitxategi horren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordetzako Gazteria Zuzendaritza da, eta bere programei eta zerbitzuei buruzko informazioa igortzeko baino ez ditu erabiliko.

Aipatutako bi fitxategiak, bai Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarena, bai kontaktuetakoa, 2006ko uztailaren 27ko Aginduaren babesean sortu ziren, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren menean daude. Interesdunek euren datuak ikusi, zuzendu, ezabatu edo fitxategian ez sartzeko lege horretan aurreikusten diren eskubideak balia ditzakete, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara idatzi bat zuzenduta (Donostia-San Sebastián kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aurrez hautatutakoen eta hautatutakoen zerrendak Gazteria Zuzendaritzaren webgunean argitaratuko dira (www.gazteaukera.euskadi.net), bai eta lurralde historiko bakoitzeko Kulturako Lurralde Zerbitzuetako bakoitzean ere, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren kudeaketarako eta dagozkion errekurtsoak gauzatzeko beharrezkoa den adinako epean.

Baimena ematen diozu Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari datu pertsonal horiek programan parte hartzen duten GKEei jakinarazteko, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa kudeatze eta egikaritze aldera?

Bai ☐ Ez ☐

Baimena ematen diozu Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari euren datu pertsonalak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Osasun Ministerioko Kanpo Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiari jakinaraz diezazkien, preskribatutako txertoak emate aldera bakarrik? (nahitaez bete beharrekoa)

Bai ☐ Ez ☐

Baimena ematen diozu Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari zure datuak harremanetarako daukan fitxategian sartzeko eta eskaintzen dituen zerbitzu eta programei buruzko informazioa zuri bidaltzeko? (nahitaez bete beharrekoa)

Bai ☐ Ez ☐

● Programan parte hartu ahal izateko, onartu beharreko konpromisoak.

Aitortzen dut ezagutu eta onartu egiten ditudala Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzeko bete behar ditudan konpromisoak, aurtengo programaren deialdia arautzen duen Aginduan zehaztuak.

Honako hau eskatzen dut:

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako izena ematea.

Aurkeztu behar diren dokumentuak:

1.– Izena emateko eskabide-orri hau, behar bezala beteta eta sinatuta.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko udalen bateko erroldan 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik dagoela egiaztatzen duen agiria.

3.– NANaren edo AIZaren fotokopia.

4.– Bi argazki.

5.– Laguntza publikoak lortzeko zehapen administratibo edo penalik ez duela, eta laguntza publikoak lortzeko gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere ez duela dioen adierazpena (II. eranskina) /

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ..... aren .....a.

Sinadura

GAZTERIA ZUZENDARIA

II. ERANSKINA

..... Jaunak/Andreak bere erantzukizunpean aitortzen du ez duela zehapen administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriaren ziozko zehapen administratibo edo penalak barne hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedepenetatik seigarrenaren indarrez.

..... , 2013ko .....ren .....a.

(Sinadura)